

Raul Perez

JUANTXO KOKA: PILOTALEKUKO ARTISTA



Koka, jokatzeko (Asegarce.com)

Juan de la Coca Perez 1973ko martxoaren 18an jaio zen Altzan. Zehazki, Larraundi kalearen 7. atarian, frontoi zaharretik oso gertu. Zortzi urterekin hasi zen esku pilotan, denborapasan. “Gazte guztiak estali gabeko frontoian elkartzen ginen, barrerean jokatzeko genuen zaharragoekin; Altzako gazteen topagunea zen pilotalekua, nolabait”.

Kokak lagunartean egindako lehen boleak, dejadak eta abar ez ziren oharkabe pasatu. Jose Mari Arrarasek begiz jo zuen, eta hark bideratu zuen pilotarantz. Beste biderik izan zuen aukerara Juantxok, futbola esate baterako. “14 urte izan arte

futbolean jokatu nuen Herrerako Sportingean, baina erabakitzeko unea iritsi zenean, zirt edo zart egiteko mementua heldu zenean, niri pilota gehiago gustatzen zitzaidan, erosoago ikusten nuen neure burua bakarkako kirol batean. Gauzak horrela, koskak igotzen joan zen, poliki-poliki. Benjaminetan hasi, alebinak ondoren, infantilak, jubenil aurrekoak, jubenilak eta azkenik, helduen edo afizionatuen kategoriarara salto, profesionalen aurretikora, hain zuzen ere.

Gauzak zer diren. Koka atzelaria zen, atzeko koadroetan aritzen zen, baina patuak zenbait txapelketatan aurrelari jokatzera eraman zuen. Eta aurreko koadroetan egindako lanak enpresen arreta deitu zuen. Abilidade berezia zuen aurreraldean 18 urte pasatxoko mutil hark. Asegarcerekin izan zuen aurreneko bilera, eta jarraian Enpresas Unidasekin ere elkartu zen. Profesionaletako atea irekitzear zegoen.

19 urterekin jokatu zuen lehen partida profesionaletan. Kontratua sinatu eta zazpi hilabetera. Seguru dio Kokak egun harekin gogoratzen dela. Eibarko Astelena frontoian izan zen norgehiagoka, 1993ko martxoaren 7an. Koka eta Aldazabal III.a Lejardi eta Azkarateri gailendu zitzaizkien. "Oso urduri nengoan, dejada asko egin nituen... Baina irabazi genuen". Haren debutari buruz, zenbat buru hainbat aburu. *Egin* egunkariaren arabera, Kokak ondo jokatu zuen, eta haren airezko erremateak goraiatu eta Eugirekin konparatu zuen. *El Diario Vascoren* arabera, erdipurdi aritu zen, urduritasuna nabaritu zitzaion. Dejadarekin ez zuela asmatu, sakearekin, ordea, bai eta pilota ondo gurutzatu zuela gaineratu zuen kazeta horrek.



Koka, Aimar Olaizolaren ondoan (Tolosaldeko Hitza)

Toreroa bailitzan

1997ko martxoaren 1a. Oso data garrantzitsua Kokaren ibilbidean. Bigarren Mailako Txapelketaren finala jokatu zuen egun hartan, Donostiako Atano III.a pilotalekuan, Mikel Goñi oronoztarraren kontra. Bizitzan maiz gertatzen den bezala, kasualitate kate batek eraman zuen Altzako pilotaria final hartara. Izan ere, has-teko eta behin ez zen txapelketan parte hartzekoa. Besagain enpresa apaleko pi-lotaria zen eta azken unean jaso zuen torneoan aritzeko txartela. Bere burua pres-tatzeko nahikoa denborarik ez zuen izan, baina kanporaketak gainditzen joan zen. Eta Agirreri finalerdietan irabazitako partida gogoangarria mugarria izan zen. 22-21 nagusitu zen, 11-19 galtzen joan ondoren. Eta final handia, Donostian. “Mikel Goñi ez dabil fisikoki oso fin eta horretaz baliatuko naiz; ahalik eta gehien arris- karazi behar diot, eta bere huts egiteak bilatu”, azaldu zuen Kokak finalaren ata- rian *Irutxulo* astekarian. Esan eta egin. 0-10 galtzen hasi bazen ere, partida irauli eta 22-20 irabazi zuen. *El Diario Vasco*k balentria eta agonia bezalako hitzekin des- kribatu zuen lehia, eta frotoian izandako giro bikaina -1.500 bat ikusle, horietatik asko Alztatik joanda- goraiatu zuen. *Euskaldunon Egunkaria* kazetaren kronikak pasadizo bat ekarri zuen gogora. Koka elektrizista da ogibidez eta final hura jo- katu izan ez balu ere, pilotalekura joan beharko zukeen berdin-berdin bere enpresa pilotalekuen argiez arduratzen baitzen. Lan jantziarekin ez, pilotariz jantzita ate- ra zen Koka, eta txapelarekin etxeratu. Toreroak bezala, bizkar gainean hartuta, ate- ra zen kantxatik.



Koka, Mikel Unanue eta Oier Mendizabal, Irutxuloko Hitza egunkariari babesa ematen

Profesionaletan zailtzen joan zen Koka, eta bikoteka ez ezik, buruz buru ere koskak igotzeko ahaleginak egin zituen. Buruz Burukoa edo manomanista da txapelketa nagusia eta 2002an goia jo zuen. 28 urterekin txapelketa bikaina egin zuen eta final-zortzirenetan, berriz ere, Mikel Goñi gurutzatu zitzaion bidean. 1997an Bigarren Mailako finalean elkarren kontra jokatu zutenetik urteak ez ziren alferrik pasatu, batez ere Goñi olatuaren gainean zebilelako. Haren jokoak bezainbeste ikusmina pizten zizuten bere ateraldiek, biraoek eta abarrek. Pilotan aritzeko dohain apartak zituela dudarik ez zegoen, eta Koka kanporatuz gero, azken kanporaketetan sartuko zuen burua, bere zale sutsuen zorionerako. Goñi-Koka partida Astelenan izan zen, Eibarren, eta ezin parekatuagoa izan zen. Alzatarrak partida esku-eskura izan zuen (17-21), baina azkenean, ozta-ozta izan bazere ere, pilotari nafarrak irabazi zuen 22-21. Hori da, beharbada, Kokari geratu zaion arantza nagusia: “Buruz Burukoa txapelketa nagusia da, Goñi bere onenean zegoen... Eta partida hura irabazi izan banu... hura zen, nire ustez, goia jotzea ni bezalako pilotari batentzat. Gainera, Ruben Beloki handiaren kontra jokatuko nukeen hurrengo kanporaketa...”. Joko aldetik ez zen oroimean gordetzeko moduko norgehiagoka izan. “Emozio handia eta joko gutxi”, zioen Gara egunkariak biharamunean. Mikel Goñik “arimarekin” irabazi zuela eraman zuen titularrera *El Diario Vascok*, bere aldetik.



Koka pilotariz inguratuta berari egindako omenaldian. Besteak beste, Beloki, Unanue, Alustiza eta Errasti ageri dira irudian (Irutxuloko Hitza)

Eskuz Binakako txapela

Edozein modutan, 2002an Buruz Burukoan eginiko bidea oso ontzat jo zuen enpresak eta horren adierazgarri, maiztasunez Lehen Mailan jokatzen hasi zela. Hurrengo urtean, 2003an, 29 urterekin, orduan bai, aurreko urtean ez bezala, goia joko zuen. Kasu horretan Ruben Beloki bikotekide zuela. Eskuz Binakako Txapelketari ekin zioten Belokik eta Pablo Berasaluzek. Txapelketa abian zela, Berasaluzek min hartu zuen eta Kokak hura ordezkatu zuen. Finalerako txartela lortu zuten, baina haraino iristeko bidea baino are zailagoak izan ziren hura jokatu aurreko egunak, benetan. Beloki gastroenteritisak jota egon zen, eta finala airean. Olaizola II.a eta Pascual zituzten zain. "Gogoan dut Beloki bisitatzea joan nintzela eta esan ziguten atzerapenik ez zela izango, haren ordezkari beste pilotari batek jokatu beharko zuela. Azkenean baina, finala atzeratu zuten eta Beloki osatu zen", oroitu du. Final hura irabazteko zer egin behar zuten eta nolako partida espero zitekeen aurreratu zuten *Irutxulo* astekariko elkarrizketa batean: "Pascual ahalik eta gehien estutu behar dugu (...) Igandekoa nire bizitzako garaipen handiena izango litzateke, baina ziur naiz ez dela partidarik borobilena izango". 22-15 irabazi zieten Olaizola II.ari eta Pascuali. Finala ezin hobeto hasi zen Koka eta Belokirentzat, 9-0 aurreratu baitziren, baina aurkariak neurketa orekatu eta aurretik jarri ziren (10-13). Azken txanpan, dena dela, Kokak eta Belokik lehiaren lema bereganatu zuten berriz ere. Ata-



Kokak sinatutako elastikoa, bere lagunartearen egoitzan, Zumardi tabernan

no III.aren harmailetan izan ziren, nola ez ba, Kokaren lagunarteko kideak. Herrerako Zumardi tabernan du egoitza Kokaren lagunartekak. Pilotariaren hainbat argazkiez gain, haren karikatura ere badute ikusgai. Baita sinatutako elastikoa ere.

Aurkia eta ifrentzua. 2009an golpe gogorra jaso zuen Kokak, ezustekoa. Asegarek kontratua ez zion berritu. Pilota uzteko momentua? Oraindik ez. Garfe enpresa apalarekin sinatu zuen eta jaialdi garrantzitsuei eta txapelketei agur esan behar izan bazien ere, frontoietan gozaten jarraitzen du. Haren aurkari izandako pilotari batzuekin egin du topo Garfen, Mikel Goñi eta Patxi Eugi esate baterako. Bizitza aldatu zaio-la aitortzen du. "Ez dizute ent-



Kokaren karikatura dute Herrerako Zumardi tabernan

trenamendurik exijitzen, baina ni entrenatu entrenatzen naiz; Astigarragako frontoira joan ohi naiz; hango gazteekin trebatzen naiz. Urtean 40 bat partida jokaten ditut, gehienak udaran. Giroa oso polita izaten da, bakarrik neurketa osteko garagardoa izaten dugu jokoan". Zaleak ez dira harekin ahaztu. Ez horixe. "Jendeak ez du ahantzi bi paretekin trebea naizela, eta zirikatzen naute hori egin dezadan". Noiz arte jarraituko du pilotalekuz pilotaleku? "Gutxienez,pare bat urte gehiago jokatu nahi nuke. Orain egiten ari garena disfrutatzea da".

Frontoian, pozarren

"Pilotak poza baino ez dit eman", dio Kokak esker onez. Gogoan du, hori bai, profesionaletan denbora gutxi zeramala zaldi batetik erori eta sei hilabete eman behar izan zituenekoa jokatu gabe, peronea txikitu baitzuen. Hura izan du lesiorik larriena. Oroitzapen gozoetara itzulita, Eibarko Tolosako Beotibar pilotalekua da bere kuttuna, eta urteotan guztiotan ezagututako pilotari bat nabarmetzeko eskatuta, Titin aipatu du: "100 partida jokatu behar baditu, denetan emango du %100, burua hautsi behar badu ere. Beloki eta Errasti ere aipatuko nituzke".



Kokaren lagunartea Zumardi tabernan.

Urte hauetan guztietan bere bi lagunek eman dute denbora gehien haren ondoan, botillero bezala. Alberdi III.a aurrera, eta Eduardo Balsategi ondoren. Haiekin pasadizoak, bat baino gehiago: “Gertatu izan zait botilleroak esatea partida dejadak egiten irabaziko nuela, ni ere horretaz jabetzea, baina nekearen poderioz kontrakoa egitea...” Eta berak ikusten al du bere burua botillero bezala? “Aritu izan naiz pare bat alditan. Behin Aimar Olaizolaren ondoan izan nintzen, baina oso gaizki aritu omen nintzen galdu zuelako!”, gogora ekarri du barrez. “Hala ere, auke-ra polita da pilotan jarraitzeko nahiz eta dirurik eman ez; asko jota, afaria”.

Duela urte batzuk haurrak trebatu zituen Donostiako zenbait frontoitan. Lan horrek asebate zuen, eta aurrera begira, eginkizun horri berriro ere helduko ote dion, batek daki. “Oier zazpi urteko semeari pilota gustatzen zaio;gustura irakatsiko nioke. Gertatzen dena orain dena gustatzen zaiola”.

Artista. Hala esaten diote oraindik ere askok Kokari, bere dejadak eta bi paretak gogoan. “Nik ez dut jotzeko ahalmen handirik izan eta beraz, dejadekin aritu naiz. Jendeak zioen pilotari argia nintzela, aurkaria ez zegoen tokira botatzen nuelako pilota”. Eta pilotalekutik kanpora? Gizon alaia da. Bikotekide eta aurkari izandako batzuekin mahai baten bueltan elkartzen da tarteka marteka sagardotegiren edo jatetxeren batean: Peñagarikanorekin, Unanurekin, Mendizabalekin, Bengoetxearekin, Otxandorenarekin... Bere lagunartean, Zumardi tabernan antolatutako otorduek ere joko asko ematen dute, benetan. Hormek hitz egingo balute...



Koka Euskal Giroa Elkartean.

Atotxan bizi da gaur egun, Egian. Etxera, Altzara ez da oso maiz etortzen. “Ile-apaindegira joaten naiz eta txutxumutxu guztiak kontatzen dizkirate, eta noiz edo noiz Altzatarra elkartean afaltzen dut”.



Juantxo Koka Hirutxulo plazan, Egian. Bertan bizi da orain.